**CAMPAÑA de SAN JOSÉ 2009**

elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

# HAY FUTURO, ESTA EN NUESTRAS MANOS

# MATERIALES PARA CATEQUESIS DE INFANCIA




**VAMOS A NECESITAR**:

- ✓ LAPICES Y BOLIS.
- ✓ CARTULINAS.
- ✓ PINTURAS DE COLORES.
- ✓ FOTOCOPIA DEL **ANEXO 2** Y DEL **ANEXO 3** PARA CADA NIÑO Y NIÑA.



# CAMPAÑA de SAN JOSÉ 2009

**LEMA**: **"Hay futuro, está en nuestras manos"**

**OBJETIVOS:**

- Que las niñas y niños se sientan protagonistas del futuro.
- Que conozcan el testimonio, la reflexión de otros niños y niñas de otros países (Ecuador).
- Que se sientan hermanos y hermanas de esos otros niños y niñas. El futuro les hermana, aquí y allá para hacer un mundo de justicia y dignidad para todas y todos.

## TALLER

INTRODUCCIÓN del Taller:
[7]



Para introducir el tema vamos a ayudar a los niños a descubrir que tienen unos derechos como niños que se tienen que cuidar en todos los lugares.

- **¿Qué valoras más de tus amigos y amigas, de tu comunidad, de tu familia, de tu país...?**

- **¿Qué echas en falta en los niños y niñas, en la sociedad, en los adultos, en tu país...**

**(Atención: Intentar que sean lo más concretos posibles y que sean ellos mismos los que reflejen lo que valoran como más importante)**

Tendréis que ser vosotras, catequistas, las encargadas de recoger lo que compartan los niños y niñas. Para ayudaros, podéis utilizar la tabla de aportaciones (**anexo 1**).

Una vez hayan respondido, profundizamos en el tema utilizando la hoja de los derechos del niño (**anexo 2**). Se pueden ir repasando todos para ver si hay alguno que no se entienda. Se puede pintar de un color aquellos derechos que ya se han conseguido y de otro color aquellos que necesitan más atención (en función de lo que hayan respondido en las preguntas).

## TESTIMONIO DE ECUADOR

A continuación les entregamos la hoja (**anexo 3**) en la que aparecen las aportaciones de una niña de Ecuador, Angie Belén. Les explicamos que a esa niña se le han hecho las mismas preguntas que a ellos y ellas.

Tras leer las 2 primeras preguntas, hacemos una parada y vemos los comentarios del grupo. El objetivo es ver el contraste entre lo que ella nos cuenta y lo que han dicho los niños y niñas nos aportan los niños del grupo. Abrir un diálogo: ¿Qué nos parecen las respuestas de esa niña? Qué puntos comunes tenemos ¿qué aspectos son diferentes? Se puede volver a la hoja de los derechos de los niños y niñas.

## COMPROMISO

Es importante que a través de estas preguntas se pueda llegar a un compromiso concreto por parte de los niños. Les hacemos la pregunta: ¿desde nuestra situación, qué podemos hacer, qué podemos aportar para tener una mejor educación, salud, trabajo para todas las personas?

A continuación se les lee la aportación de Angie Belén, su compromiso, su sueño de compartir. Que nos sirva de inspiración para la siguiente fase (también podemos utilizar la **carta de San Pablo** a los **Gálatas 6, 1 - 4** “*Se ayudan mutuamente*” ):

> *"Creo que todo esto se pudiera mejorar cuando exista más hermandad. Las cosas serían mejor en mi barrio cuando todos aportemos con nuestro granito de arena. Yo sueño con un lugar bonito para jugar, para estudiar, para vivir y en el cual todos y todas nos llevemos bien, sin importar la edad, la situación económica, la condición social y que los derechos que tod@s l@s niñ@s tenemos se nos hagan cumplir, porque no por ser niñ@s nos deben irrespetar. Quisiera que ya no existan crímenes, asaltos; que los políticos cumplan los ofrecimientos y se preocupen por los demás."*

*"Espero que ustedes tengan mejor suerte de vivir en un mejor país. Yo tengo unos cuantos familiares y amiguitos que están viviendo en diferentes partes de Europa y cuando nos comunicamos dicen que están super bien, pero ahora escucho decir a muchas personas que las cosas están de lo peor para los migrantes y también para los propios europeos. Ojalá no sea así de malo."*

*"·Nuevamente les digo gracias por tomarme en cuenta y quiero que todo les quede bien en este año de la catequesis. Chao. Con cariño,"*

*Angie Belén González Carrillo.*

## FASE CREATIVA del Taller:




Proponemos para esta fase la creación de un **mural conjunto** donde aparezcan los distintos compromisos que han dicho los niños, los sueños para mejorar las cosas, las reflexiones principales y las ideas que hayáis recogido en la hoja de aportaciones (**anexo 1**). También puede aparecer en el mural la hoja con los derechos de los niños así como dibujos que hagan sobre el derecho que les parezca a los niños como más importante.

## EXPOSICIÓN Y CELEBRACIÓN

Finalmente y puesto que se trata de un trabajo colectivo, se deberán colocar los murales en la sala de catequesis o en la celebración, como creáis más conveniente.

Como ya os hemos dicho en anteriores ocasiones, esta catequesis está pensada para hacer en dos sesiones, pero sois vosotras, catequistas, las que tenéis que adaptarla a la realidad del grupo que acompañáis. Podéis utilizar una parte de esta catequesis o utilizarla entera. Incluso en otro momento más propicio para vuestras agendas fuera de la Campaña de San José.

# ANEXO 1

| ¿Qué cosas de nuestro alrededor son valiosas o importantes para tí? | ¿Qué cosas crees que faltan o te gustaría que hubiera en tu entorno? |
|---|---|

# ANEXO 3

*PRESENTACIÓN DE ANGIE BELÉN:*

*Saludos a ustedes y muchas gracias por darme la oportunidad de aportar con mis reflexiones para su trabajo de catequesis, espero les sea de buen provecho y gran ayuda. Soy Angie Belén González Carrillo. Tengo 9 años, vivo en el Ecuador en una ciudad de nombre Arenillas. Yo desde muy pequeña asisto a las reuniones de las Comunidades Eclesiales de Base (CEBs) porque mi papá y mi mamá (Kléber y Mirella) pertenecen desde hace mucho tiempo a una de ellas llamada ANTIOQUÍA. Esas reuniones me agradan y por eso soy también integrante de ella al igual que mi hermanito David que tiene 3 años.*

¿QUÉ VALORAS DE TUS AMIG@S, DE TU COMUNIDAD, DE TU FAMILIA, DE TU PAÍS,...?

*De mis AMIG@S me gusta mucho el que somos solidarios, bondadosos y sabemos llevar bien nuestra amistad; de mi COMUNIDAD valoro el trabajo en grupo porque en la CEB he aprendido que las cosas salen mejor cuando se trabaja en equipo. En mi FAMILIA lo que más valoro es la unidad y el diálogo que existe, así como también el gran amor que nos tenemos. En cuanto a mi PAÍS, adoro y me maravillo con la bonita flora y fauna que existe.*

¿QUÉ ECHAS EN FALTA, EN L@S NIÑ@S, EN LOS ADULTOS, EN LA SOCIEDAD, EN TU PAÍS,...?

*En los NIÑ@S echo en falta el que no todos puedan acudir a la escuela porque tienen que desde muy pequeños ir a trabajar o quedarse cuidando a sus hermanitos. En cambio en los ADULTOS extraño su paciencia, porque fácilmente se enojan por varios problemas que ellos tienen, pero muchas veces nosotros no tenemos culpa de lo que les pasa. En cuanto a la SOCIEDAD echo en falta que ya no existe tanto compañerismo, por el contrario cada vez aumenta más el revanchismo entre personas o grupos por ser el o los mejores sin importar tanto los demás. Y finalmente en mi PAIS me da mucha tristeza porque escucho decir en la tele y en otras noticias que es un país que se encuentra en los primeros lugares en corrupción.*

# ANEXO 2

## Aniversario de la Convención sobre los Derechos de la Infancia

# ¡Conocemos nuestros derechos y deberes!




1 Derecho a la igualdad, sin distinción de raza, credo o nacionalidad.

2 Derecho a una protección especial para su desarrollo físico, mental y social.

3 Derecho a un nombre y una nacionalidad.

4 Derecho a una alimentación, vivienda y atención médica adecuadas para los niños, las niñas y las madres.

5 Derecho a una educación y cuidados especiales para las niñas y los niños física o mentalmente disminuidos.

6 Derecho a comprensión y amor por parte de los padres, las madres y la sociedad.

7 Derecho a recibir educación gratuita y a disfrutar de los juegos.

8 Derecho a ser quienes reciban en primer lugar ayuda en casos de desastre.

9 Derecho a la protección contra el abandono y la explotación en el trabajo.

10 Derecho a formarse en un espíritu de solidaridad, comprensión, amistad y justicia entre los pueblos.

© Copyright de los personajes Quino exclusivos de esta edición: UNICE

## 2009KO SAN JOSE KANPAINA

MMDDVV
elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

# GEROA GURE ESKU DAGO

---

# HAURREN KATEKESIRAKO MATERIALA




**BEHARKO DITUGU**:

- ✓ ARKATZAK ETA BOLALUMAK.
- ✓ KARTOI MEHEAK.
- ✓ KOLORETAKO PINTURAK.
- ✓ **2. ETA 3. ERANSKINEN** FOTOKOPIA HAUR BAKOITZARENTZAT.



# 2009KO SAN JOSE KANPAINA

**LELOA**: **“Geroa gure esku dago”**

## HELBURUAK:

- Geroa haurren esku dagoela, haiek direla protagonista sentiaraztea.
- Beste herrialde batzuetako (Ekuador) haurren lekukotasunak eta haiek egindako hausnarketak jakinaraztea.
- Haur horien anai-arrebak sentiaraztea. Geroak senidetu egingo ditu, han eta hemen, mundua bidezkoagoa eta duinagoa izan dadin guztiontzat.

# LANTEGIA

Lantegiaren SARRERA:

7

Gaian sartzeko, haiei zenbait eskubide dagozkiela —haurrak direlako— jakin dezaten lagunduko diegu haurrei, eta eskubide horiek herrialde guztietan babestu behar direla.



- **Zer da gehien estimatzen duzuna zure komunitateko haurrengan, zure familiako kideengan, zure herrialdean...?**
- **Zer sumatzen duzu faltan haurrengan, gizartean, helduengan, zure herrialdean...?**

**(Oharra: Ahalik eta zehatzen erantzun dezaten saiatu behar duzue, eta haiek berek adierazi behar dute zer estimatzen duten gehien)**

Zuen ardura da —katekistena, alegia— haurrek esaten eta adierazten dutena biltzea. Horretarako, iritzien taula erabil dezakezue (**1. eranskina**).

Haurrek erantzunak eman ondoren, gaia sakonago landuko dugu, eta haurren eskubideei buruzko orrialdea erabiliko dugu (**2. eranskina**). Banan-banan irakurriko ditugu guztiak, ulertu dutela ziurtatzeko. Dagoeneko lortuta dauden eskubideak kolore jakin batez margotuko ditugu, eta gehiago erreparatu behar zaien eskubideentzako beste kolore bat erabiliko dugu (eman dituzten erantzunen arabera).

## EKUADORREKO LEKUKOTASUNA

Jarraian, Angie Belén izeneko Ekuadorreko neskatxa batek emandako erantzunak biltzen dituen orria banatuko diegu (**3. eranskina**). Neskatxa horri ere galdera berberak egin dizkiotela azalduko diegu haurrei.

2 lehendabiziko galderak irakurri ondoren, etenaldi bat egingo dugu, eta taldeak ematen dituen iritziei eta iruzkinei erreparatuko diegu. Hau da helburua: neskatxa horrek eta taldeko neska-mutilek adierazitakoaren arteko aldea zein den ikustea. Elkarrizketari ekingo diogu: zer iritzi dugu neskatxak emandako erantzunez? Zer puntu komunak ditugu? Eta, zer desberdintasun? Haurrei dagozkien eskubideei buruzko orria erabil dezakegu berriro.

## KONPROMISOA

Gero, zenbait galdera egingo dizkiegu haurrei, eta garrantzitsua da haurrek konpromiso jakinen bat hartzea beren gain, ematen dituzten erantzunen bidez. Hauek dira galderak: gure egoera halakoa izanik, zer egin dezakegu?, zertan lagundu dezakegu pertsona guztion hezkuntza, osasuna, lana hobea izan dadin?

Jarraian, Angie Belén neskatxak emandako erantzunak irakurriko dizkiegu, bere gain hartu dituen konpromisoak, dituen ametsak jakinaraziko dizkiegu. Hurrengo faserako oso lagungarria izango da (San Paulo Galziarrei egindako gutuna ere erabil dezakegu Ga 6, 1 - 4 "Batak besteari elkarren zamak eramaten laguntzen diote"):

*"Nire ustez, egoera hau hobea izango litzateke, gure arteko senidetasuna handiagoa izango balitz. Nire auzoko egoera hobea izango litzateke, guztiok zerbait egingo bagenu, nork bere harri-koskorra jarriko bagenu. Jolasean aritzeko, ikasteko, bizitzeko leku polit batekin amesten dut; hau da, denok ondo konponduko garen leku batekin, edozein dela adina, egoera ekonomikoa, izaera soziala, eta haurroi dagozkigun eskubideak beteko dituzten leku batekin, haurrak izanagatik ere errespetatu egin behar baikaituzte. Hilketak eta lapurretak desagertzea nahi nuke, politikariek agintzen dutena bete dezaten eta guztion alde zerbait egin dezaten."*

*"Zuek hobeto bizitzea espero dut, herrialde bidezkoago batean bizitzea. Nire familiako hainbat kide eta lagun Europako zenbait herrialdetan bizi dira eta, elkarrekin hitz egiten dugunean, primeran daudela esaten dute; baina, azkenaldian, jende askori entzuten diot egoera oso txarra dela migratzaileentzat zein europarrentzat. Egoera hain txarra ez izatea nahi nuke."*

*"Berriz ere eskertu nahi dizuet ni aintzat hartu izana eta aurten, katekesian, dena ondo ateratzea opa dizuet. Agurtxo. Maitasunez,"*

*Angie Belén González Carrillo.*

Lantegiaren SORMEN-FASEA:




Denok, **elkarrekin horma-irudia** osatzea proposatzen dugu; horma-irudi horretan, haurrek adierazi dituzten konpromisoak, mundua hobea izan dadin amesten dituzten gauzak, hausnarketa nagusiak eta iritzien orrialdean (**1. eranskina**) bildutako ideiak idatziko ditugu. Horma-irudian beste hauek ere erants daitezke: haurrei dagozkien eskubideei buruzko orrialdea, eta haurrei garrantzitsuen iruditu zaien eskubideari buruz egindako marrazkiak.

## ERAKUSKETA ETA OSPAKIZUNA

Azkenik, eta denon artean egindako lana denez, horma-irudiak katekesi-aretoan edo ospakizun-aretoan —toki aproposena iruditzen zaizuena— jarriko ditugu.

Beste batzuetan ere esan badizuegu , gogorarazi nahi dizuegu katekesi hau bi saiotan egiteko antolatuta dagoela; dena dela, zuek, katekistok, zuen taldeko egunerokotasuna kontuan hartuta egokitu behar dituzue. Katekesi honen zati bat edo oso-osorik erabil dezakezue. Edo, are gehiago, zuei egokiago iruditzen zaizuen beste uneren batean, nahiz San Jose kanpainatik kanpo izan.

# 1. ERANSKINA

| Inguruan dituzun gauzetatik, zein estimatzen duzu gehien? Edo, zein da garrantzitsuena? | Zure ustez, zer falta da zure inguruan? Edo, zer nahi zenuke eduki? |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

# 3. ERANSKINA

*ANGIE BELÉN NESKATXAREN AURKEZPENA:*

*Kaixo, guztioi. Mila esker nire hausnarketak jakinarazteko aukera emateagatik eta, hala, zuen katekesi-lanean laguntzeko aukera emateagatik; zuentzat baliagarria eta lagungarria izan dadin espero dut. Angie Belén González Carrillo izena dut, 9 urte ditut eta Ekuadorren biziz naiz, Arenillas izeneko hirian. Txiki-txikitatik parte hartzen dut oinarrizko eliz elkarteak (CEB) antolatzen dituen bileretan, aita eta ama (Kléber eta Mirella) aspaldidanik direlako horietako bateko kide, ANTIOQUÍA izeneko elkarteko kide, hain zuzen. Asko gustatzen zait bilera horietara joatea, eta horregatik ni eta nire anaia txikia David, 3 urtekoa, gara elkarteko kide.*

ZER ESTIMATZEN DUZU ZURE LAGUNENGAN, ZURE KOMUNITATEAN, ZURE FAMILIAKO KIDEENGAN, ZURE HERRIALDEAN...?

*Nire LAGUNEI dagokienez, asko gustatzen zait denok solidarioak, bihozberak izatea, gure adiskidetasuna zaintzen jakitea eta ondo konpontzea; nire KOMUNITATEAN asko estimatzen dut talde-lana, taldean lan eginda gauzak hobeto egiten direla ikasi baitut CEB elkartean. Nire FAMILIAKO KIDEENGAN gehien estimatzen dudana batasuna eta gure arteko elkarrizketa da eta, horrezaz gain, elkar asko maitatzea. Nire HERRIALDEARI dagokionez, izugarri gustatzen zait eta liluratu egiten nau bertako florak eta faunak.*

ZER SUMATZEN DUZU FALTAN HAURRENGAN, HELDUENGAN, GIZARTEAN, ZURE HERRIALDEAN...?

*HAURREI dagokienez, haur guztiek eskolara joateko aukera ez dutela sumatzen dut faltan; izan ere, txiki-txikitatik joan behar izaten dute lanera edo anai-arreba txikiak zaindu behar izaten dituzte. HELDUENGAN, berriz, pazientzia gutxi dutela sumatzen dut, haiek berek dituzten arazoak direla-eta askotan haserretzen dira, eta guk ez dugu haiei gertatzen zaienaren errua. GIZARTEARI dagokionez, orain hainbesteko lagunartekotasuna ez dagoela sumatzen dut faltan, eta, aitzitik, pertsonen edo taldeen artean gero eta lehiakortasun handiagoa dagoela sumatzen dut, eta besteez ez direla arduratzen. Eta, azkenik, nire HERRIALDEAN, pena izugarria ematen dit telebistan eta beste komunikabideetan entzuten dudanak; izan ere, korrupzio handien dagoen herrialdeetako bat nirea dela entzuten baitut.*

# 2. ERANSKINA

## Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren Urteurrena

## Geure eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditugu!




1 Berdintasunerako eskubidea, arraza, sinesmen edo nazionalitaterik bereizi gabe.

2 Bere garapen fisiko, mental eta soziala bermatuko dituen babes berezirako eskubidea.

3 Izena eta nazionalitatea izateko eskubidea.

4 Haurrek zein amek elikadura, etxebizitza eta osasun arreta egokiak izateko eskubidea.

5 Ezintasun fisiko edo mentala duen haurrarentzat ...

6 Gurasoen eta gizartearen ulertzea zein maitasuna jasotzeko eskubidea.

© Argitarapen honetako Quino pertsonaien eskubide esklusiboak: UNICI

7 Heziketa dohainik jasotzeko eta jokoez gozatzeko eskubidea.

10 Herrien arteko elkartasun, elkar ulertze, adiskidantza eta justizia izpirituan hezitzeko eskubidea.

8 Hondamenik gertatzen denean, laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

9 Uztetik eta lan-esplotaziotik babestua izateko eskubidea